

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Lehendakaritzaren 32-2025 ebazpena. Kuadrillako egonkortze-prozesuen barruko praktikaldi izendapena, honako konbokatoriari dagokiona: ALHAOn, 2024ko otsailaren 2ko 14. zenbakian argitaratu zen egiturazko lanpostu hutsak betetzeko hautaketa- eta deialdi-oinarriak, lehiaketa-oposaketa sistemaren bidez, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren esparruan, hain zuzen, berdintasun teknikari (lan-kontratua) lanpostua betetzeko

Lehendakaritzak 2025eko apirilaren 1ean emandako 32-2025 zenbakiko ebazpenaren bidez, honako hau izendatu da praktikaldian, ondorengo xedapenei jarraiki:

LEHENENGOA.– Hurrengo langilearen praktiketako lan-kontratudun (finkoa) izendapena egitea:

Naiara Ferrer Fernández, 2025ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako berdintasun teknikariaren lanpostua betetzeko, lan-kontratudun langile finko gisa, administrazio berezia, teknikari azpieskalan. Lanpostu horri eta berezko funtzioei atxikitzen zaie (A1 taldea, 21. mailako lan-kontratuduna, C1 hizkuntza-eskakizunarekin, derri-gortasun-data 2022/12/30).

BIGARRENA.– Lan-kontratuko langilea denez, dagokion lan-kontratu finkoa sinatu beharko du 10 eguneko epean, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Eta hautatutako pertsona 10 egun baliaduneko epean hasi beharko da lanean, dokumentazioa aurkezten denetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.– Langileak A1 taldeko soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordainsaria jasoko du 6 hilabetez. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak jasoko ditu, salbu eta praktiketako funtzionarioen ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

LAUGARRENA.– Ebazpen hau erakundearen iragarki-taulan eta webgunean (<https://www.arabakoerrioxa.eus/eu-es/>) argitaratzea.

BOSTGARRENA.– Ebazpen hau pertsona interesdunari jakinaraztea.

SEIGARRENA.– Ebazpen honen xedapena ALHAO-n argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.– Ebazpen honen berri ematea Kuadrillako lehenengo osoko bilkuran.

Hori guztia argitara ematen da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 63. artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Aukerako berraztertze errekurtso hori jarri ezean, zabalik geratuko da bide judiziala, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi (2) hilabete, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Guardian, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria

JOSÉ M^a ELVIRA CEBALLOS